

JUAN MARI LEKUONA POETA

Izenburu hau ez da originala Juan Mari Lekuonaz ari garela, berez-berez irteten zaiguna baizik. Hark alderdi ugari zituen: apaiz eta teologoarena, unibertsitateko irakaslearena, euskaltzainarena, herri-literaturako maisuarena, poetarena... Gizakion izaera beta askokoa, korapilatsua eta irregularra izan ohi da. Jardueran ere hainbat bide eta bidezidor agertzen dira. Dena dela, horien guztien artean, bide nagusiren bat izan ohi da gehienetan. Juan Mari Lekuonaren bide nagusia poesia zen. Haren jardueretan gaina hartzen zuena, guztiak hezurmami-tzen eta biltzen zituena. Hura beste ezer baino lehen eta beste ezeren gaineratik poeta zen. Hala hartzen zuten euskal kultura-ko adituek eta hala adierazi zuten aho batez gure inguruko komunikabideek 2005eko abenduaren 5ean zendu zenean.

Badakigu gaur egun hartaz gehientsu dakitenak mintzatu direla Lekuonaren poesiaz. Euskal Herriko Unibertsitateak "Gaur Egungo Poesia" bilduman *Ibilaldia* izenburuaz argitaratu duen liburuan luze eta zabal hitz egiten da Juan Mari Lekuona-ren poesiaz eta poetak berak ere bere poesiarako joeraz eta ibilbideaz dituen usteak argi adierazten dizkigu. Interneten ere hartaz hainbat ikerketa eta iritzi zabaldu da. Zer esan dezakegu, bada, *Karmel* aldizkariko orrietatik, jada esana baitago esan beharreko ia guztia?


Zenbait zirrikitu ditut aurrean. Horietako hainbat, aipaturiko idazlan haiek ireki dizkidate; beste hainbat, neure uste eta aburuek.

Herri-literatura

Herri-literaturan ezagutu genuen lehenengoz euskaldun askok Juan Mari Lekuona. Neure esperientziaren zertzelada txikiak aipatuko ditut:

Markinako Karmeldarretan bertsolari-eguna egin ohi zen Francoren diktadura garaian urriaren 12an, guardia zibilek, beren jaia ospatzen zutela, bakean uzten baitzieten egun horretan. Bazen elkartasun eta biltzeko gogoia garai hartan! Abertzale giroko kultura-ekintzetan, arnasa hartu beharrez bezala, biltzen zen jendea... Urteroko bilera haietan bertsolaritza edo ahozko literaturari buruzko hitzaldia izan ohi zen beste ekintza batzuen artean. Gai horietan adituak zirenei deitzen zitzairen. Bi urtetan edo Juan Mari Lekuona izan zen. Lehenengoan ni ez nintzen Markina-Xemeinen; Madrilen nintzen, garai hartan ohi zenez sei hilabeteko ikastaroa egitera joanda. "Bertso-doinuak" izan zuen mintzagai urte hartan. Bertsolari egun hori sortu eta antolatzen zuen A. Migel Maria Juaristik egun haren berri emanenez idatzi zidan: "Meza ostean Juan Mari Lekuona'k itzaldi zoragarri bat egin zigun, ai emen egon ba'zina!"

Bertsolari-txapelketetan epaile-lanetan jardun zuen urte askoan; Alfonso Irigoien tarteko zela Euskaltzaindiak eratzen zuen urteetan bai behintzat. Bera pertsona baketsu, gozo eta atsegina zen eta txapelketako beroan sortu ohi ziren eztabaida, mingostasun eta, hainbat kasutan, epaileekiko mesfidantza, badakigu ez zituela gogoko. Ondorengo urteetan niri ere epaile-aulkian esertzea egokitu zitzaidan eta beti galdetzen zidan zer moduz ikusten nuen bertsolaritza, txapelketak, epaile-lana... Eskarmentu handia zuen eta bazekien ez zela batere erraza epaimahaiari gauzak zuzen eta egoki egitea; guztien gustura egitea, berriz, ezinezkoa zela. Aholku ona, hitz gozoa berez ir-



teten zitzaion orduan, hortik igaro denaren itzalaz. Halako batean agertu zidan nahiko erreta irten zela lantegi horretatik, baina inori errurik bota gabe.

Gure txanda iristean, artean trebatu gabe geunden-eta, hainbat bilera egin genituen geure buruaz konfiantza hartzeko eta irizpideak finkatzeko. Hasierako bilera haietan Juan Mari izan genuen geure artean, gidari baino gehiago argi-emaile. Gogoan geratu zitzaizkidan eta behar nituenerako ongi etorri zitzaizkidan, gainera, hark bilera haietan agerturiko zenbait

idea. Batez ere bertsolariari eskatu behar zaiona, ahozko jarduna izan arren, jende aurreko hizkera bizi eta txukuna izan behar zuela nahiko argi genuen eta hori al bait ondoen zehazten saiatu ginen Lekuonaren laguntza baliotsuaz. Beste une batean, bertsoaz segundo gutxitan iritzia moldatzeko, epaileak, bertsolariak kantatu ahala eta honi jarraituz, bere baitan bertotan bezala jardun behar zuela esan zigun. Epaileak, bere gaitasunaren arabera, bertsoak lor dezakeen gailur estetikoaren irudia izan ohi duela buruan. Horrela, bertsoa bere konposizio teknikoan eta bere osotasunean entzun ahala, ideal estetiko horrekin erkatuz joango dela.

Ahozko literatura berez, herritik eta etxetik zetorkion. Osaba Manuelen lana nahiko barneratua izango zuen eta, honen antzera, bertsolaritza modernoa baino gehiago, kopla zaharren, tradizioko kanta eta konposizio txiki politen lilura sumatuko zuen barruan. Hala dirudi.

Ahozko literaturaren maisu eta, horren osagari legez, kantagintzan ere ozen entzun genuen Juan Mari Lekuonaren izena. *Ez dok hamahiruren* garaian hasita, geroko urteetan ere, oiartzuar poetaren hitzak kantu bihurturik entzun ditugu; bai herri-kantetan eta bai eliz kantetan. Hala dioskue haren lana aztertu duten literaturzale eta poeta gazteagoek. Poeta oiartzuarrari buruz mahaingurua egin zen Koldo Mitxelena Kulturunean. Lerro hauek atera ditut Pello Otxotekorengandik:

“Gure garaiko gazte gehienok Juan Mari Lekuonaren poesiara kantuaren bidez iritsi ginen, hau da, Imanol, Xabier Lete eta Lourdes Iriondo, eta bestelakoen abestien bidez. Konturatu gabe diskoetatik eta irrati bidez bere hitzak irensten genituen zer esaten ari ginen oraindik oldoztu gabe. Geroago, afari osteko saioetan, baita zenbait herriko kale estuetan zehar parrandako uneetan ere, gu geu abestera iritsi ginen. Eta momentu batean, esaten eta kantatzen ari zaren hitzen edertasunaz kargu hartzen duzu. Orduan konturatzen zara harri bitxi baten jabe zarela eta, urteetan zehar barruan zeneramatzan abesti ho-

JUAN MARI LEKUONA POETA

JUAN MARI LEKUONA

IBILALDIA
ITINERARIO

(1950-1990)



12

GAUR EGUNGO EUSKAL POESIA

UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

riek gauza gehiago esan eta adierazi nahi dutela. Zein une zoragarria! Hala ere, *konturatze* horren hasierako unea bakarria baldin bazen, ondoren gehiago etorriko ziren”.

Horren antzeko aitortpena egingo digu Mirari García de Cortázarrek:

“Nik neuk, –eta gainerako mahaikideek ere bai, halaxe onartu baitzuten–, Juan Mariren lana Xabier Leteren eta Lourdes Iriondoren eta Imanolen kantuen bidez ezagutu genuen aurrena, abesti haietako hitzak (nik neuk behintzat) Lekuonarenak zirenik jakin gabe; gure *abozko tradizioa* kontuan hartzen badugu, Errota zar maitea eta Eskutxock jo dute kantak entzun eta ikasi baikenituen poemak irakurtzen hasi aurretik. Urte mordoxka igaro zen, beraz, 90. hamarkadan *Mimodramak eta ikonoak* lanak edukitako oihartzun handiaren ondoren, Lekuonaren lana irakurri eta lerroz gozatu arte”.

Haren ibilbidea

Juan Marik bere ibilbide poetikoaz idazten duenean, zenbait aitortpen egiten dizkigu. Nork bere poetikaz hitz egin eta barruan gorderik dituen hainbeste nabardura azaleratu beharrik, itsuskeriatik eta iruzur eta engainutik baduela zerbait esango digu. Baina hori egiteko arrazoi batzuk jarri ondoren, hala dio:

“Onartzen dut ausardia desitxuroso horren arriskua bizkarrreratzea, helburu honekin onartu ere: laguntza bat eman nahi nieke kritikari eta irakurleei nire poetikaren ibilbidea ulergarriago gerta dakien, poemategien interpretazio objektiboa errazago mami ahal dezaten, eta poemaren gozamina beteagoa izan dadin denentzat. (...) Eta poemen ulerkuntza estetikoa koherentea gerta dadila nahi nuke kreazio-ahaleginen historiarekin”.

Gaztetan bere inguruko gutxi bezalako zortea izan zuela ere aitortzen du. Gerra osteko urte zailetan, 40ko hamarkadan,

euskal poesia gizartetik zokoratua eta galarazia zegoenean, amonaren etxean poesi biblioteka ongi hornitua aurkitzeko zoria izan zuela. Manuel Lekuonaren seminarioko biblioteka zen. Bestalde, ikasketak egiteko aukerarik ia batere ez zenean, seminarioan ikasketak egiteko zoria izan zuela. Unibertsitateko ikasketak egitea oso gutxirena zen garaian, zabalik aurkitu zuen Erromako bidea, teologiazko ikasketak burutzeko eta bereziki espiritualitatea lantzeko. Berak esango digu aukera hauek guztiak ezin ukatuzko zantzua utzi zutela bere poesi formazioan. Osaba Manuelek ere zerikusit handia izango du horretan. 16 urte zituenerako agertu omen zion osabari olerkigintzarako gogoia. Honek *Euskalerrri*ko olerkariak irakurtzeko aholkua eman zion, gerra aurreko Orixe, Lizardi eta Lauaxeta zailegiak izanik, ikaratu eta gogogabetu egin zitekeelakoan... Bere-bereak ere eman zizkion irakurtzeko, *Gerrateko nere amabi kantak* izeneko poemak. Beraz, seminarioko ikasketen aurretik, osabarekiko harremana eta amonaren etxeko biblioteka erabakigarriak izan omen ziren Lekuona gaztearen orduko formazio poetikoan. Horra arte, aldeko haizea baino ez zuela izan esan genezake. Seminariokoak bietarik zeukan. Hona berak dioena:

“Ez zen inguramen egokiena orduko seminarioan indarrean zegoena, ez poesigintzarako eta gutxiago olerkari izatea auke-ratzeko. Elizgizonen irudia eta poetarena ez ziren elkarrekin ongi josten orduko gizarte-ulerkuntza hartan. Baina hala ere, nahiko probetxuzkoa izan zela esan behar seminarioko kultur-gintza oro har eta hango literatur bizitza”.

Seminarioko *Ratio Studiorum*ean, bidezko denez, erretorikari garrantzi handia ematen zitzaion; hizlariak prestatu behar ziren batez ere seminarioetan. Latinezko eskoletan *Ars dicendi* ikasi zuten eta *Preceptiva Literaria* gaztelaniazkoetan. Praxi aldetik, deklamazioko eskolak aipatzen dizkigu; hauetan ahotsa eta gorputz-espresioa lantzen ziren eta poema batzuk, entzunaren entzunez, barru-barruraino sartzen zitzaizkien. Irakasle-

en artean Pablo Bilbao Aristegi bereizten du guztien gainetik, eta bere esker ona agertzen dio:

“Irakasleen artean, berriz, bada bat esker ona eta aitorten betea eman nahi nizkiokena une honetan. On Pablo Bilbao Aristegi jauna dut hori. Berau Nuestralia-ko taldekide zen, Blas de Oterorekin batera. (...) On Pabloren bidez ezagutu nituen talde honetako kide zirenen zenbait olerki; eta buruz ere ikasi nituen, eta ikaskideen aurrean deklamatu ere bai Jaime Delclauxen zenbait poema, hala nola *Oración a Cristo muerto deritzana*”.

On Pablori esker gure garaiko poetikaren usmoa bereganatu zuen eta talde aitzindari baten norabide poetikoa ezagutu.

Zer esan Erroman teologiako ikasketak egiten igarotako garaiaz? Poesia egiteko ez zuela astirik nahiko hartzen diosku. Baina hango ingurumari aberatsa eta fina eragin ona izan zirela estetikarako. “Biblioteketan zeuden literatur aldizkariak, hango arkeologia gaindiezina, hango kultur eragin guztia, eskakizun bat ziren niretzat, eta beti ekin nion Erroman poesiak idazteari”. Poesia bideetan sendotzeko erreferentzia eta eragin-garri bizia izango zena aurkitu zuen Erroman. Eliz ikasketetan ari ziren ikasleek *Estría* izeneko poesia aldizkarian esku hartzen zuten. “Gero *Nuevo mester de clerecía* deritzan antologian idazten duten izenak dira, Erroman, elkarrekin gertatu ginenak, hala nola Cabodevilla, Martín Descalzo eta beste. Mugimendu berria zen, ausarta. (...) Poesia erlijioso garaikide baten usmoa hartu nuen urtealdi haietan”.

Poema solteak

Ikasle zen garaian poema solteak burutu zituen. Ez direla asko eta gainera aldiari aldiari emaitzak direla diosku. Haien artetik aukeraturikoak *Muga beroak* izeneko poema-liburuan argitaratu zituen; hau da, esanguratsuenak, haren poesia egiteko lehen urratsak markatzen dituztenak. *Ibilaldia* liburuko bilduman ez ditu argitaratu, baina bere ibilbidea ulergarri egitea-

JUAN MARI LEKUONA

Mimodramak eta ikonoak



p o e s i a

ematen da, izadia Jainkoaren urrats eta zantzu bezala ulertuz. Bigarreanean, ohiko erromantizismo bidea utzirik, sakonagora jotzen du, alderdi fisiologiko eta psikologikoak agertuz. Lehen saria lortu zuen kasu bietan. "Bigarrenez jaso nuen lehendabiziko saria. Eta azpimarragarriena, oraindik areago markaturik utzi ninduela poesiarako lehiaketa hark".

Kanturako poematxoak ere sortzen ditu Erroman ikaslea zeneko hartan. Garai haietan ospakizun eta bileretan kantua ia beharrezko osagaia zen. Hala diosku berak: "Ezin utzizkoa zen horrelako egokieretarako zerbait berria taxutzea. Eta gero lagunartean kantatzea".

eragin
literatura

rrer, bakoitzaren aipamen laburra egiten du. Hasiara hartan, bere-be-rea izango duen bidea hartu arte, maisu ezagunak zituen: "Hasieran, Orixeren eragina dut nabariena, batez ere erlijio-giroko gaiak idazterakoan. Baina uste dut eragin estetikoa Lizardirena eta Lauaxetarena dudala bai metrikan, bai sinbolismoa lantzeko isurian, bai usmo modernoago baten bizipenean".


Oraindik ez du lan sakonik burutzen. Lehiaketetara bidaltzeko poemak dira lehenengo-eta-koak, *Izadi abestia* (1950) eta *Ama* (1951). Lehenengoan frantziskanismoaren ikuspegia

Lan sakonago eta luzeagoak burutu arte, *Ubel* (1955) izeneko poemak aldaketa antzekoa markatzen du. Hala ikusi eta adierazi du berak: "A. Valverderen margolan bati eskainitakoa da, eguberritako oporretan *Aialde* izeneko etxean, margolariarenean, ikusi nuen laukiari iruzkin poetiko bat zuzentzen diona. Apunte soil bat duzu, baino inpresionismo baten eraginpean landua, geroko nire mundu estetikoaren hasiera kontsidera daitekeena: neurkerrean librean ikuspegi kulturista eta irudiduna aurkezten duela". Honen antzekoa dugu urte berean (1955) idatzirik *Aize-errota* poema. Portugalen, Fatima inguruko muinoetan, ikusi zituen haize-erroten sentimenduak eragindakoa, aurrekoan pintura-koadroaren aurrean izandako sentimenduak bezala. Egiten duen ohar honi erreparatu diot: "Bertan ageri da ondoenik geroko nire poemagintzaren izaera, irizpidea eta portaera".

***Mindura gaur* (1966)**

Ikasturteetako azken poemetatik hamarkada bateko etena dago hau idazten duen arte; bitartean kantua eta bestelako lantxo batzuk egingo ditu, baina poesia-lan luzerik ez. Añorgako parrokiako apaiz-laguntzaile izendatu zuten. "Pentsatzekoa denez, jendarteko bizitzak beste zeregin estetikoetara ninderraman, poesia puruari agur esan beharrez. Batez ere herriaren mindurak ukitzen ninduen han-hartan". Seminarioko hezitzaile-taldeko egin zuten laster. Orduan hasi omen zitzaion barruan zirika berriro poesia idatzi nahia; hartarako aukera on baten zain zegoen. Dena dela, gero ikusiko zenez, lan txiki-txoak eta kantua bai, baina lan luzei ez zien ekiten itsumustuan. Goian aipaturiko mahainguru hartan Mirari Garziaren hitzak hau baieztatzera datoz: "Juan Mariren poemak ez dira pentsamendu, sentimendu edo irudi baten bat-bateko emaitza; luze eta sakon hausnartu eta landutakoak dira, hortik liburu batetik besterako urte-tarte handia".

Seminarioko hezitzaile-kargutik askatu zeneko, asmo bat edo bi zerabiltzan buruan: Erromara joatea, doktore-tesia amai-



tzeko eta defendatzeko eta poemategi bat idaztea. Tesia amaitu berri, aukera ona izan zuen bere lehenengo poemategia prestatzeko. “Agora” saria jarri zuten Donostian olerkariarentzat. “Saria Xabier Leteri eman zioten, eta aipamen berezia jaso zuten I. Sarasolak, J. Azurmendik eta nire olerki-sortak. Eta aipatutako lau poemak liburu banatan argitaratu ziren. Ibonentzat eta Joxerentzat lehenengo eta azkeneko poemategiak izan zirelarik, Xabierrek eta nik jarraitu egin genuen olerki-berritzen”.

Añorgan zegoeneko sentimenduen emaitza da lehenengo liburu hau. “Herriaren mindurak ukitzen ninduen han-hartan” dio garai honetaz hitz egiterakoan, ordura arteko lirika-bidetik ezingo zuela garai honetakoa adierazi esan nahirik. Arestiren *Harri eta herri* liburuak erakutsi zion, poesia egiteko bazela beste biderik: herriaren pozak eta minak, arazoak kantatzekoa, hau da, herriaren era guztietako sentimenduetatik hurbilagokoa, poesia soziala deritzona. “Mamiaren aldetik ikusarazi zidan nire parrokiako gogoetak gai onak izan zitezkeela poesiarako. Eta formaren aldetik, berriz, hautsarazi zidan estrofismo markatuegia. (...) Eta hala ekin nion olerkigintza modakoa omen zenari, poesia existentzial-sozialari Arestiri esker”.

Arnasa luzeko lan honi ekin zioneko, Añorgako urteak atzean geratuak eta iraganak ziren, baina bihotzean zeramatzan. Bizipen eta sentimendu haiek berritzea eta poema bihurtzeko oroimenetik erditze gunera ekartzea ez zitzaion zail gertatuko, *Mi diario en Añorga* baitzuen lagungarri, egun bat ere huts egin gabe idatzi zuen egunkaria.

Errota zahar izeneko poema laburra Xabier Leteren eta Lourdes Iriondoren kanta-saioetatik ezagun egin eta zabaldu zen. Galduz eta itzaliz doan gure mundu zatitxo batek eragindako negarra edo sentimendua sumatzen dut poema honetan, forma aldetik zortziko txikia ardatz dela moldatutakoa.

Meretriz hila izeneko poema ere ez da luzea, baina bai sentimendu handia adierazten duena eta hunkigarria. Gogoan dut Mikel Zarate zenak Deustuko Unibertsitateko ikasgelan, ahozko literaturako hainbat gai bezala, barru-barrutik azaldu zigula. Argi zegoen bere poema gogokoenetakoa zuela hau eta harezkero niretzat ere hala izan zen. Hau idaztean egilearen barruko bizipenak eta giroa aipatzea komeni da eta berak ematen digu ondoen horren lekukotasuna: "Gero kristau existentzialismoa aipatu beharra dago. Ez garaiko hura bakarrik, baizik eta lehendik zetorrena. Seminarioan nire eskuetara iristen ziren erdarazko literatur autoreetan, Unamuno, Bernanos eta Léon Bloy ditut gogoan. Eta ildo beretik zihoan eliz gogoe-ta aurreratuena, batez ere apostolutzarekin zerikusia zuen gogoeta eta praxia. Koordenada hauen barruan eskuratu nuen neuk ere arazoen ulerkuntza eta hauekiko jokabide praktikoa: eduki nahi dut presentzia amultsua min dutenekin; eta itxaropenezko jarrera mundu berriko oinaze zaharra bizi dutenekin; eta mezu bat du gure arteko mindurak. *Meretriz ila, Ez neri esan* eta *Lo artzen detanean* hortik doaz".

Hondarrean idatzia

Existentialismoak tristura eragiten zion, batez ere irtenbiderik gabeko nihilismoak. Horregatik, sakonagoko zerbaiten

bila ari zen. Bestalde, ez zegoen konforme poesia sozialarekin ere. Dualismo arruntzia sumatzen zuen hor: “Ezin nuen irentsi dualismo arruntik: onak eta gaiztoak, aberatsak eta pobreak, zapaltzaileak eta zapalduak, gu eta besteak. Azpirago jo beharra zegoen: gizaki guztiak berdin diren azken dimentsiotara. Eta materia eta izpirituarekin jokatu nuen, haina ororenak diren materia eta izpirituarekin, inolako bereizkuntzarik gabe taxaturiko ikusmoldean”.

Barrunbearen esperientziatik hasten da, *Bibotza* izenburuztat duela. *Ludia nigan* deritzon poema dator gero eta biziaren sorrera eta ametsa hartzen dira mintzagai. “Baina poemaren gunea, *itsasoaren uretan sortua naiz* horretan dago, hemendik aurrera sartzen denez poemategia bere erretenean, lurraren, suaren, uraren eta eguratsaren arketipoak poetikoki irakurtzeari ekiten zaionean”. Poema-bilduma honen izenburua *Ura nigan* poemaren lehen zatiaren amaierako hitzetatik hartua da: “Itsasoaren poema bilakatu nauzu / hondarrean idatzia”.

Ondorengo hitz hauetan agertzen digu bere barruko egoera hau idatzi zuenean: “Bistan da gizaki biluziaren poema dela ene hau, orduko gizarte-ulerkuntzaren eta existentzialismo konkretuari beste irtenbide bat eman nahiz taxutua. Arketipoen aipamenean eta irakurkeran legoke estetika alderdirik aipagarriena. Eta esan dezadan hau ere: aurreko poemategian besteren mende azaltzen naizen arren, hemen nire bidea aurkitu nuela, bakarrik ibiltzen hasi nintzela. Eta geroztik nire bidetik nabil, behin harturiko erantzukizunetik urrutiratu gabe”.

Oihu ilunak espiralean

Bergmanen *Gritos y susurros* film ospetsuan inspiratua. Eduardo Txillidaren eragina ere aitortzen du autoreak.

Luis Mari Mujikak idatzitako hitzaurrean ohar argigarriak daude liburu hau eta, oro har Lekuonaren ibilbide poetikoa, ongi ulertzeko: “Bere lehenengo poesialdiak –lizardismoari


itsatsiegia, agian, egonik ere—, gerora bide fresko eta oparoak hartu ditu, batez ere *Hondarrean idatzia* deritzan poemaldian. Materiaren itsaso sakonean sarturik, mundu sinboliko jori bat mamitzen du poetak (lurra, ura, sua eta eguratsaren balentziak), telurismo sujerigarrian kreatuz. Hori guztia sinbolismoaren uhain gozoetan dabil nolabait”.

Liburuaren lehenengo zatia eta bigarrena guztiz desberdinak dira. Argi dago, hitzaurregileak ez duela hain gogoko bigarren zatia, *Liburuen Karroxa* izenekoa. Hala ere, zati honen balio onargarriak ere aipatzen dizkigu labur-labur: “Zati honen baliorik nabarmenena espontaneismoa da, eta ironiaren eta azpi-ironiaren jarrera ohargarria. Hori dena guk hain ahaztua dugun bertso neurtuan ematen da, eta hori estimagarria da...”

“Juan Marik hartu duen triptiko joera estetikoa (errealismoa / sinbolismoa / surrealismoa eta batzutan populismoa laugarren fasealdian), guztiz jatorra eta sujerigarria gertatzen da, euskararen alorrean behintzat”.

Mimodramak eta ikonoak

Juan Mariren poemak ongi helduak eta astiro landuak, sakonak dira, zailak, azken liburu bietakoak batez ere. Euskal literaturaren hainbat kritikarik aztertu dituzte haren ibilbidea eta haren ezaugarriak. Goian aipaturiko mahainguruan, esaterako, Mirari Garziak, lortu duela dirudi haren poesia-barrunbera barneratzeko giltza. Labur, baina egoki azaltzen dizkigu haren poesia egiteko era, joerak eta berezitasunak. Egia esan, poeta bera dugu bere poesian barneratzeko giltza eskaintzen diguna eta baita gidaririk onena ere. Aurrekoetan bezala, hemen ere beraren aipamen batzuk ekarriko ditugu hona. Poemaren erai-kuntza nola pentsatu zuen, baina asmoa bere luze-zabalez gehiegizkoa izanik, nola etorri zitzaion liburua eta poema bakoitza murrizteko argia. “Premios Nacionales de Literatura” delako lehiaketan epaimahaiko zenez gero, lan haiek irakurtzerakoan etorri omen zitzaion argia: “Poemaren egitura zabala *iti-*



nerarium mentis bat izango zen. (...) Poemak, aingeru itxuran, sei hegal izango zituen, sei alderdi denborazko, gure kultura izpiritualaren aldi markatuenak barnean hartuz. Hegal bakoitzak giza aro bat mami zezakeen: koba, ortzia, politeismoa, kristautasuna, erdi aroa, ziutate modernoa”.

“Baina gehiegizkoa zen asmoa luze-zabalez. Zailegia izateaz gainera, erraldoia ere bazen asmo poetiko hori”. Argia etorri zitzaiola esan dugu “Premios Nacionales de Literatura” lehiaketara aurkeztutako lanak irakurtzerakoan: “Nire poemaren gaia lehengoa bera izango zen, baina bai liburua eta bai poema bakoitza askoz ere laburragoak behar zuten izan, zuriekin jokatuz, esaldiak aforismotuz, irudiak kulturizatuz, tratamendua es-

tilizatuz eta koloreztatuz, estetika izanik lege gorena, garaiko poetikaren ildotik”.

“Liburuak bi zati izango zituen, bi esfera bakarrik. Lehen esferan kobazuloko bizikizunak aurkeztuko ziren, *bestiarium* baten antzera taxutuak. Bigarren esferan *planetarium* bat landuko nuen, indoeuropar mundu-ulerkuntzaren bidetik. Gero, sei hegalen eraikuntza gal ez zedin, preseski sei parte izango zituen liburuak, eta parte bakoitzak beste sei poema”.

Moldea egin ondoren, idazteari ekin behar. Poema eraikitzeko materialaren bila hasi zen: “Nire gogoko mundu kulturaletik, bi etorri zitzaizkidan burura: gestuak hartuko nituen gai, eta ikonoak ere bai, ahozkotasanaren eta arte plastikoen eremutik”.

Azken hitzak

Mende honetako euskal poeta handienetakoa galdu genuela esan zuten aho batez komunikabideek Juan Mari Lekuona hil zenean. Aurretik ere esana zuten beste askok. Euskal poesia ia beste inork ez bezala landu zuen. Etengabe estetika-forma berrien bila ari zena genuen, gure poesiaren baratzea edertu nahi izan zuen lorezain saiatu eta sentibera. Bera eta beste literaturzale batzuk gidari direla, poema bakoitzaren iruzkinik egin gabe baina, egin dugu haren poesi baratze bidaia arin hau, besterik ezean baratze eder horren gain-gainctiko ikuspegi izan dezan *Karmel* aldizkariaren irakurleak.

Luis Baraiazarra Txertudi